

Anton Abbadia Thompson Dublinen jaio zen 1810eko urtarrilaren hiruan eta Parisen hil 1997ko martxoaren hamazazpian.

Gurasoak etorki noblekoak eta aberatsak ziren: aita, Arnaud-Michel d'Abbadie, Zuberoako Ürrüxtoi herrian jaioa, eta ama Elisabete, Anthony Thompson of Parck-en alaba, Irlandan. Aitonaren izena ipini zioten, beraz, primuari, eta ondoren iritsi ziren seme-alabak honelaxe izendatu zituzten: Eñaut, Jean-Xarles, Elise, Zeline eta Juliene.



Anton Abbadia,
1810-1897.

ANTON ABBADIA IKASLE

Ez dakigu zehazki zein urtetan itzuli ziren Frantziara. Jose Arana jesuitaren arabera 1813an eta Jean Louis Davanten iritziz 1820 urterako Frantziako Tolosa inguruan bizi ziren jadanik. Hegoaldean dagoen hiri honetan burutu zituen bere gazte-ikasketak Antonek, eta bikain gainera, Matematika, Fisika, Kimika, Botanika, Astronomia, Latina, Grekoa, Mnemoteknia eta beste zenbait gai gogo eta buru argiz ikasi baitzituen.

Hona 1826-27 ikasturtea hasten duenean bere egunorozkoan xehetasun handiz kontatzen diguna:

Goizeko zazpitan jaikitzen naiz. Zortzietan eskolara noa. Hemen irakasle zahar batek Geometriako kontu miresgarriak irakasten dizkit. Astelehen eta ostiraletan beste irakasle gazte batekin Fisika ikasten dut, modu benetan atseginean. [...] Hamaiketan Despan jaun kimikari jakintsuarekin nabil. Eguerdian liburutegira joaten naiz atsedenaldira bat hartzera. Hemen Geografia irakurtzen dut, batxiler-titulurako prestatzen ari bainaiz. [...]



2

Ordu batean, Lécuse jaunaren eskoletara noa, eta ordu bietatik lau t´erdietara arrunt aspertzen naiz psilogismoez. Bostetan afaltzen dut. Ondoren Algebra eta Ingelesa Buison gure lehen filosofo serioarekin ematen dut beste ordu batez. Eta arratsaldea geometria-irudiak eginez edo Chateaubriand, Delavigne edo beste literatura-izarren bat irakurritz bukatzen dut. Hamarretan amaitzen dut eguna.



Bruselako biltzar kontraesklabistan (1889-1890) Greinde Barua-k Anton Abbadiari egindako irudia.

Badirudi aita Eñaut-Mikel izan zela semeak zientzia eta euskaltzaletasunean abiarazi zituen. Ezagutzen ditugun gutun batzuek dioskutenez, berak lagundu zion Tolosan greko-irakaslea zen Lécuse-ri honen *Grammaire Basque* delakoa (1827) moldiztegiratzen. Bertan M.



Anton Abbadia etiopiarrekin Abbadia jauregiko irudi batean. Ondoa duen umea d'Abdullah da, morrontzatik askatu eta berarekin ekarri zuen mutikoa.

d'Abbadie Arrastoitarrak sinaturik baditu zenbait bertsoleerro euskaraz Astarloaren etimologia-metodoa kritikatu.

Jada Parisen bizitzen jarriak daudelarik, Baionako seminario nagusian buru zen Darrigol abadearen *Analyse raisonnée du Système Grammatical de la Langue Basque* deritzan lanari Volney saria (1829) ematea lortuko du.

Parisen, St. Dominique kalean bizi izan ziren, Anton Legea eta Zientzia Zehatzak deitu gaietan murgiltzen zelarik François Arago zuzendari. Baina, nola ez, garaiko gazte erromantiko bati zegokion bezala bertsoak eta ipuinak ere idatziko ditu, bai ingelesez eta bai frantsesez.



Michel-Arnaud d'Abbadie, Ras Mikael (1815-1893).


3



Jean-Charles d'Abbadie (1821-1901).

4

1832 urtean aita hil egin zitzairen eta anaia Eñaut hurrengo urtean Aljeriara joan zen Constantine-ren espedizioarekin. Anton beti arituko zaigu jo eta ke aspaldi amestu Ekialdeko bidaia prestatzen, horretarako beharrezko dituen jakin beharrak ikasten eta antolatzen, hala nola, astronomia-erramintak, arabiera eta forma fisiko ona. Hasten da, beraz, lehenik bidaia laburrak burutzen.



BREITAINIAN BARRENA

1833an Britainiara doa. Hemen Rennes, Lorient, Kimper eta beste zenbait herri bisitatzen ditu bere koadernoan bideetako gurutzeen eta eliz-atarien irudiak marrazten dituela. Ohiturez, jantziez, tradizioez eta makailu-arrantzaz ere arduratzen da.

INGLATERRA, IRLANDA ETA ESKOZIAN BARRENA

1835ean Irlanda, Ingalterra, Eskozia eta Euskal Herrian barrena ibiliko da, eta esan dezakegu honetaz idazten dituen *Pensées, études et voyages de 1835*, alegia, urte horretako gogoetak, ikerketak eta bidaiak, lehen liburutto baten ahalegina direla (hogeita bost urte duen zientzilari eta poeta gazte baten lehen lan serio hau argitaratu gabe zegoen Institut de France delakoaren liburutegian eta iaz Abbadiaren heriotzaz gerozko mendeurrena ospatzen zela, moldiztegiratu genuen). Bertan kontatzen digu nola urte hasieran Londresera joaten den, orduan ohi bezala, itsasuntziz. Hemen teatorra, astronomia-bileretara, liburu-dendetara eta adiskideengana hurbilduko da. Nola ez, Londreseko



**Pensées, études et voyages de 1835* eskuizkribuko 58. folioa.

Dorreari ere bisitatxo bat egingo dio, hauteskondeak aipatuko, eta abar.

Londres utzi eta Irlandarako bidea hartuko du, eta mehatz-lurraldeak igaro ondoren (Liverpool adibidez), Dublinera iritsiko da. Eta hemendik bere aitaxi-amatxien lurak ikusiko ditu; hauek zer nolako errentak ematen dituzten eta zein etekin atera diezaioketen arakutzen du. Bitxia da ikustea nola behiez eta zerriez, feriez eta katolikoez at, Irlandako kartzela-egituraz ere interesatzen den. Eta batipat, gazteluez, jauregiez eta abadetxe eroriez, hauetako batean aurkitzen duen buru-hezurra berekin daramalarik. Ez da falta, noski, laku batean ekaitzik: erromantizismoaren uretan blai busti eta pulunpatzearren. Irlandatik Eskoziara. Hemen Glasgow eta Edimburgo



Anton Abbadia eta Agosti Chahok Parisen 1836an argitaratu euskarari buruzko gramatika-ikerketak.

bisitatuko ditu, azken hiri honen edertasunak liluratuta uzten duelarik. Burns poeta eskoziarraren hilobia ikustera joaten da eta Walter Scott-en oroitarria kopiatzen du. Scott eta Lord Byron aipatzen ditu bidaia luze baterako liburu-egile ahantzezinak bezala. Erosten dituen liburuen artean ez da faltako Victor Hugo-ren *Nôtre Dame de Paris*.

Inglaterran barrena dabilela bi leku miresten ditu bereziki: York eta Cambridge. Lehenaren katedral gotikoaz harri eta zur gelditzen da, eta bigarrenaren estropadak dastatzen ditu, traineruei jarraitzen dielarik lasterka ibaiertzetik. Parisera itzuli eta buruan ideia hauxe darama: Ekialdeko bidaia, Nilo ibaiaren iturburuak eta zibilizazioaren seaska aurkitzea. Beste bidaiari batzuen testuak ere kopiatzen ditu; hala nola, Lamartine-ren *Voyage en Orient*-eko pasarteak. Aipatzen digu, halaber,



Anton Abbadiaren bertsoak ingelesez euskal aidean. 1835. urte inguruan moldatuak.

6

nola Inglaterrara berriz itzultzen den soilik jauregi bat ikustearren. Cowes-eko moiletan dabilen bitartean itsasuntzien prezioez arduratzen da. Balirudike berea litzatekeen belariz gogoetatzen duela Mediterraneoan barneratzea.



Agosti Chaho (1810-1858), Zuberoako idazle, kazetari eta hizkuntzalari.

EUSKAL HERRIAN

Udazken aldera Audoux-en, Biarno eta Zuberoako mugan erositako jauregian dago, bertan bere adiskideek bisititzen dutela. Hemendik Zuberoa, Nafarroa Beherea eta Lapurdi zeharkatzen ditu oinez. Getarian pilotan jokatzen du, eta Sokoa-Hendaia aldean itsaso haserretuari poemak idazten dizkio. Esan bezala, ez zaio 500 kapituluxkatan banatu liburuttoari poemarik falta, horietarik bitxienak ingeles poema batzuk dira euskal doinua buruan dutela idatzitakoak. *Mendian zoinen eder epher xango gorri*, eta *Aitarik ez dut eta ama ere zahartu...*, geroago, 1870 urtean zehazki, Salaberri abokatuak bere kantutegian bilduko zituenak.

Honela bada, hitz lauz eta neurtitez idatzitako kaier honek gazte erromantiko, baina zientzilari eta bidaiari amorratu baten lanaren aurrean ipintzen gaitu, hain zuzen, garaiko beste frantziar eta ingeles burges kulto askok idazten zituzten moduko lan baten aurrean.

BRASILEN

1836an joango da, Aragog agindurik, Lorient-eko portutik irtenda Brasilerara. Han erabaki beharko du eguzkiak orratzen eraginik duen bero-iturri gisara ala magnetismo-iturri bezala. Olinda herrian egingo ditu, frantziskotar-komentu bateko kalostran kokaturik, hogeita minutu oroz eta berrogeita bi egunez ikerketak, baina daramatzen tresneriez mesfidatuz bertako Inkisizioak kartzelan sartuko du. Lortzen du azkenean ingeles kontsulari esker, mila sufrimendu pairatu ondoren, aske gelditzea eta ahalik eta lasterrena handik alde egingo du Parisera itzuliz.

Bere arbasoen Euskal Herri maitean itzuliño bat egin ondoren, hamabi urte iraungo duen Etiopiako bidaiari hasiera emango dio Marseilleko portutik abiatuta.

ETIOPIAN

Malta, Alexandria, El Kairo, Nilo ibaia, Kenéh, Jeddah, Missawa, desertua, Itsas Gorria, gameluak, belariak, hizkuntza arrotzak, Mekara doazen islamzaleak... Hamaika arrisku eta oztopo bidean, baina denak gaitutako ditu euskaldun-irlandarrak. Aitzina egiteko, ordea, eskuak erabiltzea (hau da, opariak egitea herrietako buruzagiei(oinutsak laztuak eta ohituak edukitzea bezain garrantzitsua gertatu zitzaion, ahalegindu arren argitzen ez zela marxandixak salduz etekinak ateratzen ohi zituen merkataria, lagun urkoaren ezagutzan saiatzen zen jakintsua baizik.

Etiopiako lurraldeetan sarturik iristen da Adwa-raino, baina bidean saiatu arren bere tresneriaz ahalik eta neurri

7



Ismael, Aden-go interpretea, Hadamard-en marrazki batean.

geodesikorik zehatzenak lortzen (distantziak eta mendietako gailur-alturak, adibidez), ohartzen da azkenean berekin daramatzan aparailuek paraje burdintsu haietan ez diotela behar adineko zehaztasunik ematen eta, orduan, Parisera itzultzen da erositako esklabo bategaz. Bidean Erroman gelditzen da eta lurralde urrun haietara misiolariak eramatea proposatzen dio Aita Sainduari.

Frantziako hiriburuko Geografia Elkartean aurkezten du ordurarteko bidaiaren berri ematen duen txostena. Zientzilari adiskideek teodolitoa, sextantea, barometroa, hipsometroa, kronometroa eta beste tresna egokiago eta aproposagoak uzten dizkiote behar bezalako zehaztasunez neurriak har ditzan.



Guglielmo Massaia kardinala (1809-1889) Anton Abbadiaren adiskidea.



De Jacobis, Etiopiako apezpikua.

1840ko otsailean Missiwa-n dago berriro bere anaia Eñautekin, hau Coxo buruzagiaren adiskide handi eta gerra-buru ere bilakatu delarik. Erabakitzen dute bakoitzak bere bidetik jotzea, eta bereizi egiten dira. Antonek eskopeta-istripu lazgarria pairatuko du, eta ondorioz, begi baten bista erdi galdurik, oftalmia mingarriaz sufrituko du ia bidaia osoan, nahiz eta sendatzeko Aden, El Kairo eta beste zenbait lekutako medikuekin ahalegin guztiak egin.

Gaisotasunak, ordea, ez zion eragotzi bere ikerketa-lanetan. Geodesia-neurriak, hizkuntzak, literaturak eta ohiturak aztertzen zituen heinean horien berri ematen zien Parisen zituen gutun-hartzaileei, batez ere, Jomard eta Avezac jaun jakintsuei.

1843-44 urteetan falaxa edo judu beltzak gelditzen diren herrietan estudioak eginen ditu beren erlijio,

ohitura eta hizkuntzaz, xehetasun handiz.

1847ko urtarrilaren 19an Abbadia anaiak Frantziako bandera ezartzen dute Nilo zuriaren iturburutzat duten lekuan, hau da, Bubbiako oihanean, Inarya eta Jimma erresumen artean.

Aspaldi Frantzia aldean beren berririk ez dutenez, hiltzat jotzen dituzte bi anaiak, amak beste anaia, Jean-Xarles, bidaltzen du bila. Hark hamaika galdeketa egin ondoren 1847ko uztailaren 25ean Missiwa-n topatuko du Anton. Hala ere, sorterrira itzultzeko


eguna ez zuen ikusten Antonek, lurralde haietako jauntxoek adiskidetasunak preso harturik baitzeukan. Hainbat arazo igaro

ondoren El Kairora iristen da 1848ko udazkenean eta Marseillara 1849an.

Bidaia honetan bildutako hainbat eta hainbat lanen berri ematen iraganen dute bi anaiak eta batipat Antonek. Eñautek, adibidez, *Douze ans de séjour dans la Haute-Ethiopie* (Hamabi urteko egonaldia Etiopia Garaian) argitaratzen du 1868an eta Antonek, beste lan askoren artean, *Géographie de L'Ethiopie, ce que j'ai entendu faisant suite à ce que j'ai vu* (Etiopiako geografia, entzun dudana eta ikusi dudanaren gibeletik) (1890ean).

9

Pierre Savorgnan de Brazza (1852-1905), Anton Abbadiairen adiskide esploratzailea 1887 urtean egindako argazkian.



10

BESTE ZENBAIT BIDAIA: NORVEGIA, ESPAINIA, HAITI...

1851n Norvegiara joango da Frederiks-voern izeneko herrira uztailaren 28ko eklipse osoa ikertzera. Hiru minutu eta hogeitasei segundu iraun zuen honek, eta behatzaile guztiak ohartu ziren eklipse bukaeran eguzki gainean ageri zen txapela antzeko zerbaitez.

1859an Lyongo Virginie Vincent de Saint-Bonnet, 28 urteko andereñoarekin ezkonduko da. Ehun mila libera zekartzan dote moduan eta ondasun anitzen jabe zen. Eztei-bidaian Alemaniara joan ziren.

1860ko uztailaren 18an Espainiako Briviesca-ra joango da. Han zenbait astronomorekin batera (Petit, Lespiault, Prazmowski...(beste eklipse oso bat aztertuko du. 47 aldiz irudia handitzen zuen beira batez baliatu zen oraingoan hiru minutu eta hogeita lau segundu iraun zuen ilunaldia arakatzeko.

1867ko martxoaren 6an beste bidaia bat antolatzen du Aljeriara, eta han Bougsoul-eko herrian behatzen du eklipse partziala.

1882ko udazkenean bere emaztearekin batera Haitira joanen da espedizio-buru bezala Venus planetaren iragaitea aztertzerako.

1884-1885ean beste bidaia luze bat prestatzen du Ekialdera, gaztetako oroitzapenak berritzeko eta ikerketa berriak burutzeko asmoz, eta El Kairo, Atenas, Alexandria, Beirut, Esmirna, Damasko, Napoli, Erroma eta beste zenbait hiritarik astronomia-oharrak jasotzen ditu.



ABBADIA JAUREGIA

Hendaiako hondartza bukatzen den unetik Donibane Lohizunerantz doazen lurraldeetatik itsasoari begira dauden paraje miresgarrietarik 340 hektarea erosi zituen Antonek bere egoitza eraikitzearen. 1860 eta 1870a artean Viollet-le-Duc arkitekto ospetsuaren



Hendaian 1860-70 urteetan zehar eraiki zuen gaztelua Viollet le Duc-en plano neogotikoen arabera.

planoak modu aske batean interpretatuz beste arkitekto batek, Duthoit jaunak, jaso zuen jauregi neogotikoa. Kanpoaldea harrizko krokodilo eta Afrikako beste iduri xarmantez dago horniturik.

Barnealdeko hormetan Etiopiako irudi ikusgarriak dasta daitezke.

Gelak, liburutegia, 1880an sartu bi metro luze duen



12



Etiopiako irudiak eta amariñeraz idatzitako esaldiak gazteluko hormetan.



Egongela nagusiko tximinian idatzirik hurrengo esaldia: "bizitza badao kea bezala".

teleskopioa eta abar hizkuntza ezberdinetako testu eta erretrauz daude jantzita, hala nola: *Zunbat ageriz izan haboro*, alegia, hobe dela benetan izatea itxurak egitea baino; etiopiar esaera den, *Behartsuen elokuentzia beren malkoak dira*, eta Oihenartek besteren artean jaso zituen *Erho bat aski da harri kantoin baten putzura egozteko baina sei zuhur behar dira haren hantik itoiteko*, eta *Orratzak mundu oro du beztitzen eta bera biluz gelditzen...*

1864ean argitara eman zuten *Zubernoatikako Gutun bat* lapurteraz, hain zuzen, euskaraz idatzitako gutun bakanenetakoa, "Urruinako Kontseiluko menbroeri" zuzendua, bere lurretan igarotzen ziren bideek sortutako arazoez.



Behatoki astronomikoa.

1836az geroztik gutxienez Anton hasia zen Geografia Elkarteko buletinean bere bidaia eta hizkuntza-azterketen berri ematen.

1842ko ekainaren hamazazpian Afrikako bidaiaz egindako txostenengatik zilarrezko domina eman zion Société de Géographie delakoak, eta hamabi urteren buruan bidaia amaitutakoan, Geografia Elkartek, Frantziako presidentearen eskuz sinaturik 1850eko urriaren 2an, lortzen du agindua, non urrezko domina eta legioaren ohorezkoa ematen zaizkien bi anaiei, bai Frantziako komertzioarentzat eta bai Geografiako zientziarentzat egindako zerbitzuen ordainez.

Europan zen etiopiar eskuizkribu-bilduma aberatsenaren jabe zen Abbadia eta Etiopiako irakasleen jerarkian partaide.

1852an burutu idazlanen saritzat Zientzia Akademian Geografia eta Nabigazio Saileko akademiko urgazle gisara hautatua izanen da eta hamabost urte geroago partaide titularra. Halaber, urte batzuk geroago Frantziako Tolosako Akademiako, hala nola, Zientzien Aitzinamendurako Britainiar Elkarteko kide.

1870ean Pariseko Filologia Elkarteko lehendakari, eta 1877an Bruselako Société Scientifique delakoaren partaide izendatu zuten eta hurrengo urtean, 1878an hain zuzen, Bureau de Longitudes deitu elkarteko funtzionario.

1879ko irailaren 21ean Perpinyá-n bere irakasle eta laguntzaile izan zen politikari eta astronomo handiaren, 1848an ministrari zenean kolonietan esklabotasuna deuseztatu zuen gizonaren omenezko hitzaldia burutuko du, harrizko irudiaren aitzinean, benetan gogoangarri eta irakurgarri den solas dotorea.

Frantzia, Ingalaterran, Alemanian, Italian, Belgikan, Espainian, Irlandan, Estatu Batuetan, Euskal Herrian, Egipton eta beste hainbat eta hainbat lurraldetan antolatzen ziren zientzia-elkarteetako partaide eta kolaboratzaile izan zen gure Anton. Azkenik, 1892an, Frantziako Zientzia Akademian lehendakari hautatuta gertatu zelarik.

Adibidez, Bruselan bere adiskidea zen Lavigerie kardinal euskaldunak antolatutako esklabotasunaren kontrako biltzarrean parte hartu zuen txosten benetan interesgarriaz. Beti lan eta lan, azkenean Iman Ahmed, Gagne deituaren XVI. mendeko konkista eta espedizioak arabieratik

frantsesera itzultzen ari zela hartu zuen heriotzak. Lan hori Vienako unibertsitatean irakasle zen Paulitschke doktore eta bidaiari handiak plazaratu zuen hurrengo urtean (1898).

14



Virginie Vincent de Saint-Bonnet, Anton Abbadiaren emaztea.

James Bruce-ren bidaiaren liburuaren itzulpena

EUSKAL GRAMATIKA

1836an Agosti Chahorekin batera "Zazpi Uskal Herrietako Uskalduner" zuzendurik, *Études grammaticales sur la langue euskarienne* delakoa argitaratzen du, sarrera luze bat ipiniz. Aitzineko gramatikariak (Oihenart, Harriet, Larramendi, Humboldt, Lécuse) aipatzen ditu eta garaiko izpiritu konparatistari jarraiki, zenbait hizkuntzarekin erkatzen du euskara; hala nola, hungariera, finesa, hebraiera, laponiera, georgiera eta ketxua. Kritiko agertzen da, adibidez, atzizki eta hitzen arteko bereizketa ezarekin, hala nola, *-tasun* eta *-keria* atzizkiei Humboldt-ek ematen dien esanahiarekin. Azkenik, euskal liburu argitaratuen zerrenda digu eskaintzen.

ETIOPIAR ESKUIZKRIBUEN BILDUMA

Antonek ezagutzen zituen Vatikanon eta Inglaterrako liburutegietan ziren etiopiar-eskuizkribuak, baina bere aldetik ere beste batzuk biltzen saiatuko da. Bilduma gero eta oparagoa egiten joango zaio, baina ez nekerik eta zailtasunik gabe. Batzuk falaxa behartsuei erosiak dira, besteak beraxek kopiatuak edo besteei kopiaraziak. Garai hartako kopiagilerik hoberena, Dabbara Hadgu, bere zerbitzuan ezarriko du, baina kexu da Anton zenbaitetan

kopiak lortzeko dituen eragozpenengatik eta horiek galarazten dioten denboragatik.

Esate baterako, *Erregeen Historia* liburu famatuaren ale baten kopia egiteko bi urte itxaron behar izan zituen, eta burutzeko beste bi. Bere anaia Eñautek, jada Ras Mikaël izenaz ezagutzen den gerlari famatuak, lan horretako eragozpenak gainditzeko lagunduko dio, eta halaberetsu Justin de Urbin misiolari frantziskotarrak ere beste zenbait lortu, egin eta oparituko dizkio; hala nola, frantses-amariña hiztegia eta gramatika. Liburu edo eskuizkribu gehienak Testamentu zahar eta berrikoak eta saildunen bizitez diren arren, ez dira falta astrologiaz, kalenderaz, magia, mediku-errezetez, musikaz, edota hizkuntzez dihardutenak.

15




HERMAS-EN ARTZAINA

Erroman II. mendearen hasieran bizi zen profeta judu-kristau honen *Artzaina*, luzaroan inspiratuzat joa, eskuizkribu bildumako 174a, geez hizkuntza sakratuan idatzita dago. Antonek latinera itzuli eta 1860an plazaratu zuen Leipzig-en, jada beste bertsioetan 1513az geroztik zen ezaguna, hala nola Chrétien Lefèvre d'Étaples humanista famatuak egindakoan.

Abadiak bildutako etiopiar eskuizkribuko irudia (XV. m., 105 zk., 122. folioa, kantiken kantika)



Nilo ibaiaren iturburuen bila ari zelarik arakatu zituen lurraldeen mapak osatu zituen.



FRANTSSES-AMARIÑA HIZTEGIA

Inolako zalantza eta dudarik gabe esan dezakegu 1883an argitaratu lan hau izan zela Antonek burututako handiena hizkuntzalaritzaren arloan. Mila orritik gorakoa lan gotorra da, eta hala misiolari lazaristei, nola kaputxinoei, eskainia: Etiopiako hobekuntzan hainbeste izerdi eta buruhauste emanak zituztenez gero, esker onez. Hamabost mila hitz inguru ditu eta denak, noski, bere frantses ordainez lagundurik daude.


Horretan lagundu zioten beste hizkuntzalari jakintsu eta misiolari batzuek ere; hala nola, Touvier, Coulbeau, Steah, Taurin Cahagne eta bestek. Hitzaurrean gramatika-ohar batzuk ematen dizkigu eta euskararekiko erkaketak. Amariña hizkuntza semitikoen azpimultzoan kokatzen du, zein, halaber, afro-asiatikoen barne kokatu behar dugun.

Esan bezala misiolariari eskaini zien lan hori, baina horretaz beste hainbat abenturazale eta kolonizatzaile ere baliatu ziren, esaterako, Arthur Rimbaud poetak bere Afrikako egonaldian Etiopiako bidea hartu zuenean berarekin eraman zuen Anton Abbadiaren frantses-amariña hiztegia.



17

Institut de France,
Académie des Sciences
delakoak 1907an
argitaratutako liburua
Anton Abbadiaz.



Biblioteca Apostolica
Vaticana-k argitaratu zuen
hiru liburutan Jeanne-Marie
Allier-ek paratutako edizioa
(1980-83).

EUSKAL LORE JOKOEN SORTZAILEA

1851eko udan Euskal Herrira eta prezezki Urruñara etorri zelarik, hasiera eman zien laister ospetsu bilakatuko ziren bere "Concours de Poésie" delakoei, Lore-jokoei, edota garbiago esanda, Koplarien guduei, eta ez zen urterik pasa 1851etik 1897a arteraino (hots, hil arte) bere poltsikotik ordaindu gabe sari ederrik pilotari, bertsolari eta bertso-idazle hoberenei. Erdi Aroan Proventzan hasi ondoren, Europa osoan hedatu eta XVII. mende aitzinean Nafarroan ere ospatu ziren norlehenka hauek. Baina hona hemen Abbadiak non eta zein urtetan antolatatu eta ospatu zituen:

Urruña	1851-1863
Sara	1864-1876, 1878, 1882, 1884, 1885
Donapaleu	1877
Elizondo	1879
Maule	1880, 1890, 1896
Irun	1881
Markina	1883
Urnieta	1886
Azkaine	1887
Kanbo	1888
Doneztebe	1889
Iurreta	1891
Donibane- Lohizune	1892
Donibane- Garazi	1894
Bera	1895
Areatza	1897



1851n Urruñan antolatu Eliza-festaren irakargia



Anton Abbadiaren oharrak berak emandako sariez


Sari eta norlehenka hauetara aurkeztu bertsoekin *Anton Abbadiaren Koplarien Guduak. Bertso eta aire zenbaiten bilduma 1851-1897* liburua prestatu eta argitaratu zen 1997an. Bertan ikus dezakegu nola Abbadia (Duvoisin eta Intxauspe euskalzaleen laguntzaz) saiatu zen zazpi probintzietan zehar antolatzen euskal jai edo "olimpiada" tipi hauexek. Bertsoez aparte, beste joko anitz ere saritzen zen, printzipalki pilota-jokoan irabazle gelditzen zirenak, baina baita irrintzi-egileak, korrikalariak, haziendarik hoberenak aurkezten zituzten laborariak eta beste asko ere.

Poeta sarituen artean hor ageri dira, Joanes Oxalde, Leon Elissamburu, Jean Baptiste Elissamburu, Jean


Baptiste Larralde, Bethiri Olhondo, Joanes Berjes, Augustin Etcheverri, Gratien Adema *Zaldubi*, Martin Arrupe, Felipe Arrese Beitia, Biktoriano Iraola, Karmelo Etxegarai, Piarres Ibarrart, Jose Artola, Klaudio Otaegi, Felipe Casal, Frantzisko Lopez Alen eta beste.

Ez zituen, ordea, bertsoak soilik bultzatzen, prosaz edo hitz lauz aurkezten ziren lanak ere saritzeko agindua eman baitzuen jada 1875 urtean.

Lapurdin hasi zirelarik (Urruña-Sara), beste herrialdeetara hedatu nahi izan zituen euskal festa hauek. Hala, Nafarroa Beherera iragan ziren (Donapaleu-Donibane-Garazi), eta



Anton Abbadiaren gutuna euskaraz Sabas Reparazi (1874.10.10).



R.M. Azkueren gutuna A. Abbadiari (1891.10.05). Pariseko Liburutegi Nazionalean dago (n.a.f. 21746, 344.).

20

lehen aldiz hegoaldera 1879 urtean, Nafarroako Elizondora, hain zuzen.

Bigarren karlistada bukatutakoan, Abadiaren etsenplua eredugarri bilakatu zen, eta ereindako haziak fruitua ematen hasi zen lurralde ezberdinetan. Horrela 1880an, Begoñan, Beran, Donostian eta Maulen moldatu ziren euskal idazleak bultzatzeko nor-gehiagokak. Gipuzkoan bere babesgopean Irunen, Urnietan eta Azpeitian ospatu ziren eta Bizkaian Markinan eta Iurretan.

Donibane-Lohizunen 1892an antolatutako festetan jada, iragarkiak Zazpiak Bat ikurra zeraman, eta azkenik Anton hil ondoren, bere emazte Virginie-ren babespean Arabara (Aramaio,1899) zabaldu ziren, horrela lortuz biltzea euskararen banderapean zazpi probintzietako euskaldunak, egia bilakaturik amestutako Zazpiak Bat.

